



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 15a

117. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00120. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beste erkidego batzuen aldean Nafarroaren lehiakortasun fiskalaren hobekuntza izan dadin aldaketa fiskalei buruzko hurrengo legearen oinarria. Irene Royo Ortín andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00121. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Senatua eta bertako talde parlamentarioak premiatzen baititu errespetatzen dezaten Nafarroako Parlamentuaren gehiengoaren borondatea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa aldatzearen alde agertu baitzen. Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- 11-24/MOC-00122. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita trafikoaren arloko eskumen osoa har dezan bere gain. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (6. or.).
- 11-24/MOC-00123. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren administrazio- nahiz aurrekontu-izapide guztiak azkartu ditzan Cascanteko osasun-etxe berria 2026ko abenduan bukatuta egon dadin. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (7. or.).
- 11-24/MOC-00124. Mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita Nafarroako turismoaren webgunea berritu dezan. Ibai Crespo Luna jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 11-24/MOC-00125. Mozioa, zeinaren bidez Gobernu zentrala premiatzen baita Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra bete dezan eta berma dezan hizkuntza koofizialeko ekoizpenari dagokionez legean ezartzen den ehunekoa betetzen dutela ikus-entzunezkoen plataforma digitalek. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (9. or.).
- 11-24/MOC-00126. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legea berrikus eta gaurkotu dezan, gure erkidegoko kultura-errealitate berrietara egokitzeko. Daniel López Córdoba jaunak aurkeztu du (10. or.).
- 11-24/MOC-00127. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar adinako aurrekontu-zuzkidura duten programak ezar ditzan, istripu-tasa handieneko sektoreetako enpresa nafarrei zuzenduak, laneko arriskuen prebentzioa indartzeko. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (11. or.).

- 11-24/MOC-00128. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Pirinioetako Plan Estrategikoarekiko konpromisoa berresten baitu eta Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren txostenean jaso ziren baina oraindik bete ez diren gomendioak lantzeko konpromisoa hartzen baitu. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkeztu du (12. or.).
- 11-24/MOC-00118. Mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Erriberriko gaueko larrialdi-zerbitzua berriz jar dezan. Osoko Bilkuran izapidetzea (13. or.).
- 11-24/DEC-00046. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (14. or.).
- 11-24/DEC-00047. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie landa-eremuan bizi diren emakume guztiei. Eledunen Batzarrak onetsi du (14. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00120. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita beste erkidego batzuen aldean Nafarroaren lehiakortasun fiskalaren hobekuntza izan dadin aldaketa fiskalei buruzko hurrengo legearen oinarria

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita beste erkidego batzuen aldean Nafarroaren lehiakortasun fiskalaren hobekuntza izan dadin aldaketa fiskalei buruzko hurrengo legearen oinarria.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Fundación para el Avance de la Libertad eta Tax Foundation fundazioek egindako azken lanean –fiskalitatea beste erkidego batzuekin alderatuta aztertzen da, bost zerga nagusirekin lotutako hirurogei aldagai baino gehiago baliatuta: errentaren gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga, oinordetzen gaineko zerga, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga eta autonomia-erkidegoetako zerga berekiak–, Nafarroa azken tokian ageri da lehiakortasun fiskalaren

rankingean, bai errentan bai ondarean. Orobat beteko luke azken tokia sozietateen gaineko zergan, nahiz eta zerga hori ez den zerrenda horretan ageri, Euskadik eta Nafarroak soilik daukatelako sozietateen gainean arauak emateko ahalmena; izan ere, foru-erkidegoak % 28ko zerga-tasa aplikatzen die enpresa handiei, eta Frantzia eta Espainiako gainontzeko erkidegoetan % 25ekoa aplikatzen da, eta Euskadin, berriz, % 24koa.

Joan den ostiralean, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioko lehendakariak deitoratu egin zuen Nafarroak 14. tokia hartzea lehiakortasun fiskalaren erregio-indizean, zeinean Madril eta euskal ogasunak lehen tokian baitaude, eta honako hau adierazi zuen: "nik nire zergak eta Gipuzkoan ordaintzen direnak ikusi nahi ditut, eta 'ni berdina naiz' esan, 5 metrora dauden enpresek ez dezaten erabaki hara joatea. Daukaguna gorde eta ahal dugun guztia erakarri behar dugu".

Errentaren gaineko zergan Nafarroak aurtan onetsi zituen aldaketek –eskala autonomikoa nahiz gutxieneko pertsonal eta familiarrak deflata-tu ziren– ez dute zuzendu Nafarroak beste erregio batzuen aldean daukan desabantaila fiskala; aitzitik, toki bat galdu du aurtengo Lehiakortasun Fiskalaren Indize Autonomikoan, halako moduan non, lehen adierazi dugun moduan, erkidegoa azken tokian jarri baita hala errentari nola ondare-ari dagokienez.

Co.Ciudadanak aurkeztutako Joeren Nafarroako Panelak ere beste horrenbeste erakusten du: gure ahulezietako bat da fiskalitate handia eta inbertsiorako erakarmen txikia daukagula, eta horiek giltzarri dira gure etorkizunari begira.

Hori dela-eta aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamena:

Bakarra. Nafarroako Gobernua premiatzen da beste erkidego batzuen aldean Nafarroaren lehia-kortasun fiskalaren hobekuntza izan dadin aldake-ta fiskalei buruzko hurrengo legearen oinarria.

Iruñean, 2024ko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

11-24/MOC-00121. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Senatua eta bertako talde parlamentarioak premiatzen baititu errespe-ta dezaten Nafarroako Parlamentuaren gehiengoaren borondatea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuz-tuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa aldatzearen alde agertu baitzen

GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai talde par-lamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Senatua eta bertako talde parlamentarioak premiatzen ditu errespe-ta dezaten Nafarroako Parlamentuaren gehiengo-aren borondatea, Nafarroako Foru Eraentza Berre-zarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa aldatzearen alde agertu baitzen.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Eregela-menduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Horren jarraipena Lehendakaritza eta Berdin-tasuneko Batzordeak eginen du.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak aurtengo maiatzaren 23an onetsi zuen (UPNk, PSNk, EH Bilduk, Geroa Baik eta Contigo-Zureki-nek alde bozkatu zuten, eta PPNk eta Voxek berriz, aurka) Nafarroako Foru Eraentza Berre-zarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren aldaketa, zeinaren bidez trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazio-aren eta bide segurtasunaren arloko eskumena eskualdatzen baita.

Nafarroako Parlamentuak onetsi eta gero, Gobernu zentralari igorri zitzaion, lege organiko gisa izapidetu dezan Gorte Nagusietan; izan ere, foru araubidearen izaera juridikoa aintzat hartuta, Foruaren Hobekuntza ezin da aldebakartasunez aldatu.

Diputatuen Kongresuak irailaren 10ean onetsi zuen (179 boto alde eta 169 boto aurka) Nafarroa-ko Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruz-ko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren aldaketa, zeinaren bidez Nafarroari eskualdatzen baitzaio trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkula-zioaren eta bide segurtasunaren arloko eskumena.

PSOE, Sumar, Podemos, BNG, Junts, ERC, EH Bildu, PNV, UPN eta Coalición Canariaren aldeko botoei esker lortu da lege organikoak onesteko, aldatzeko edo indargabetzeko behar den gehiengo osoa.

Diputatuen Kongresuan onetsi ondoren, alda-keta hori Senatuak berretsi beharko du, bigarren eta behin betiko bozketan.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren aldaketa 2024ko irailaren 19an sartu zen Senatuan, zeinak bi hilabeteko epea baitauka testua jasotzen duenetik aitzina –2024ko azaroaren 19ra arte, alegia–, bozketa egiteko.

Alderdi Popularrak iragarri du betoa jarriko diola trafikoa eskumena Nafarroari eskualdatzearen Foruaren Hobekuntza aldatzen duen lege organikoaren proiektuari. Geroratze-taktika bat besterik ez da, eskumena Nafarroari eskualdatzea atzeratzeko, Nafarroako Parlamentuaren jarrera eta agindua gorabehera, 50etik 45ek eman baitzuten aldeko botoa bertan.

Senatuan bozketaren azken emaitza zein izan den jakinik –izan ere, Alderdi Popularrak gehiengo osoa dauka, eta Foruaren Hobekuntzaren aldaketaren aurkako betoa baliatuko duela iragarri du, eta, hortaz, proiektua Diputatuen Kongresura itzuli beharko da, proiektua berriz bozkatzeko eta Senatuaren betoa kentzeko–, uste dugu jarrera hori prozedura alferrik luzatzea dela, Nafarroaren autogobernari bidenabar kalte ginez.

Geroa Bain uste dugu Nafarroako Parlamentuak Senatuko talde parlamentarioei exijitu behar diela Foruaren Hobekuntza eta Espainiako Konstituzioa betetzea.

Hortaz, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Senatu eta bertako talde parlamentarioak premiatzen ditu Nafarroako Parlamentuaren gehiengoaren borondatea errespeta dezaten, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa aldatzearen alde agertu baitzen.

2. Nafarroako Parlamentuak Gorte Nagusietako talde parlamentarioei eskatzen die epeak luza-tu gabe egin dezaten horri buruzko bozketa, al-bait azkarren bete dadin gure autogobernua, trafikoa-ren eskumena Nafarroari eskualdatzeari dagokio-nez.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Eleduna: Pablo Azcona Molinet

11-24/MOC-00122. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita trafikoaren arloko eskumen osoa har dezan bere gain

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita trafikoaren arloko eskumen osoa har dezan bere gain.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Laster, behin betikoz aldatuko dira Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.3 eta 51.1 artikulua, foru-erkidegoak ber gain har ditzan, Auzitegi Gorenaren otsailaren 15eko 258/2024 eta otsailaren 22ko 281/2024 epaien ondotik, trafikoaren eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloko eskumenak.

Gorte Nagusietan prozesua amaitzen denean, eskumenen eskualdaketa gauzatzeko unea iritsiko da, eta Transferentzien Batzordeak erabakiak hartu beharko ditu Trafikoaren eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloko eskumenak eskualdatzen dituen 252/2023 Errege Dekretuaren bidez Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatutako Estatuaren Administrazioaren eginkizunak zabaldu eta abian jarri ahal izateko.

Eskumen horiek modu eksklusiboan baliatzeak ez du zertan eragotzi zenbait zerbitzu eta eginkizun modu partekatuan bete ahal izatea –beste eskumen oso batzuekin gertatzen den bezala–, nafarrei ahal den zerbitzurik onena ematea bilatu behar baita beti.

Beraz, ez du ematen oso logikoa denik Guardia Zibilak arlo horretan duen esperientzia handiari uko egitea, zergatik eta euskal alderdi nazionalisten interesak asetzeko xede hutsagatik, Nafarroako errepedeetan Guardia Zibilak ikusi ahal izatea ekidin nahi baitute.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du trafikoaren arloko eskumen osoa har dezan bere gain, halako moduan non Foruzaingoak izanen baitu errepedeak zaintzeko zerbitzuari dagokionez lidergoa, eta zerbitzua Foruzaingoaren eta Guardia Zibilaren artean modu partekatuan emanen baita.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

11-24/MOC-00123. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita behar diren administrazio- nahiz aurrekontu-izapide guz-tiak azkartu ditzan Cascanteko osasun-etxe berria 2026ko abenduan bukatuta egon dadin

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita behar diren administrazio- nahiz aurrekontu-izapide guztiak azkartu ditzan Cascanteko osasun-etxe berria 2026ko abenduan bukatuta egon dadin.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osasun Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Cascanteko osasun-etxea da Murchantek, Monteagudok, Tulebrasek, Barillasek eta Ablitasek osatzen duten oinarrizko osasun eskualdeko erreferentzia. Sei herri horien artean 12.000 biztanle dauzkate.

Osasun-etxe hori egun hartzen duen eraikina oso andeatuta dago, eta egiturazko gabezia handiak ditu. 2021eko apirilean jada, Parlamentu honek mozio bat aho batez onetsi eta gero, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen osasun-etxe berria eraikiko zuela Cascanten, Europako REACT funtsekin finantzatzeko zena (bi milioi

2022an eta beste bi milioi 2023an). 2021eko uztailan, Gobernuak prentsa-ohar bat argitaratu zuen, zeinean iragartzen baitzuen sei osasun-etxe eraikitze eta handitzeko proiektuak idazteko lizitazioa; besteak beste, Cascantekoa. Proiektua 2022tik dago, baina obrak ez dira hasi ez 2022an, ez 2023an, ez 2024an.

Cascanteko Udalak, ikusita obren hasiera atzeratzen zela, Nafarroako Gobernuak premia-tu du, Osoko Bilkuran aho batez onetsitako mozio baten bidez, hartutako konpromisoa bete dezan. Oinarrizko osasun eskualdea osatzen duten beste udal batzuen osoko bilkuretan akordio bera hartu izan dute. Gainera, udalak hasieratik bertatik bete du bere eginbeharra, Osasun Departamentuaren errekerimendu guztiak bete baititu; izan ere, kasuko administrazio-espeditenteak izapidetu ditu, 265.952,46 €-ko lurzati bat laga du osasun-etxe hori eraikitze eta, are, Avenida kultur-zentroan espazio bat lagatzetik heldu diren kostuak ari da bere gain hartzen gaur egun, errehabilitazioko zentro periferiko eta fisioterapiako kanpo-kon-sultetarako zentro gisa erabil dadin.

Aurrekari horiek kontuan hartuta eta ofizioz, Nafarroako Arartekoak txosten bat egin du orain-tsu; txosten horretan, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuari gomendatzen dio hartu beharreko neurriak har ditzan osasun-etxe berri bat eraiki ahal izan dadin ahal bezain laster, egun-goak egiturazko gabeziak dituela ikusita.

Hori dela eta, erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du behar diren administrazio-nahiz aurrekontu-izapide guztiak berehala hasi eta azkartu ditzan Cascanteko osasun-etxe berria 2026ko abenduan bukatuta egon dadin, Cascanteko osasun-etxe berria eraikitze konpromisoa bete gabe baitarama 2021etik.

Iruñean, 2024ko urriaren 7an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/MOC-00124. Mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita Nafarroako turismoaren webgunea berritu dezan

IBAI CRESPO LUNA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen baita Nafarroako turismoaren webgunea berritu dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Luna jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroako turismoaren webgunea funtsezko tresna da gure erkidegoa hala nazioan nola nazioartean destino turistiko gisa eta sektore profesionalarentzako beharrezkoa den zerbitzu gisa sustatzeko. Plataforma horren bidez aurkezten dira Nafarroak kulturaren, kirolaren, paisaiaren nahiz gastronomiaren arloan dituen aberastasuna

eta eskaintza, bai eta jarduera nahiz esperientzia profesionalen eta aisialdiko eskaintza anitza.

Halere, azken urteotan ikusi da beharrezkoa dela tresna digital hori modernizatzea eta gaurkotasua, turismo-merkatu gero eta digitalizatuago, lehiakorrago eta globalago baten exijentzietara egokitzeko. Webgune intuitiboago, eskuragarriago eta teknologia- eta komunikazio-formatu berrietara egokituago batek informazioa eskuratzea erraztuko lieke balizko bisitariei eta sektore profesionalari, eta nabigazio-esperientzia hobetuko luke.

Nafarroako turismoaren webgunea berritzeak erkidegoaren irudia indartzen lagunduko luke, turista digitalaren eskaera berrietara egokitutako destino berritzaile gisa.

Era berean, Nafarroako turismo-sektoreko eragileekiko komunikazioa hobetuko luke –hala nola hotel, jatetxe, turismo-gida eta turismo aktiboko enpresekikoa–, eta haien zerbitzuekin hobeto koordinatzeko aukera emango luke.

Horregatik guztiagatik, uste dugu Nafarroako turismoaren webgunea berritzea premia estrategikoa dela turismo-sektorearen garapenerako, merkatuan kokatzeko eta foru erkidegoaren ekonomia bultzatzeko, sektorea eredu jasangarri, irisgarri eta digital baterako eraldaketan.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

– Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen dugu Nafarroako turismoaren webgunea berritu dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 8an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

11-24/MOC-00125. Mozioa, zeinaren bidez Gobernu zentrala premiatzen baita Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra bete dezan eta berma dezan hizkuntza koofizialetako ekoizpenari dagokionez legean ezartzen den ehunekoa betetzen dutela ikus-entzunezkoen plataforma digitalek

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Gobernu zentrala premiatzen baita Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra bete dezan eta berma dezan hizkuntza koofizialetako ekoizpenari dagokionez legean ezartzen den ehunekoa betetzen dutela ikus-entzunezkoen plataforma digitalek.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Orain dela egun gutxi batzuk, Hizkuntza Ofizialen Kontseiluaren bilera bat egin zen Alacanten, eta Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde Ollo andreak bertan parte hartu zuen. Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko ministro Ángel Víctor Torres buru eduki zuen bilera horretan lehendakariordeak erreibindikatu zuen foru-erkidegoak hemendik aitzina eskubide osoko

kide modura eta ez gonbidatu modura parte hartu ahal izatea, autonomia-erkidegoek horrela parte hartzen baitute orain. Hori hala izanen da, hain zuzen ere, kontseilu horren funtzionamendua eta egitekoak arautzen dituen dekretua aldatzen denean.

Bileran beste gai batzuk ere aztertu ziren, hala nola Eskualdeetako eta Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutunari buruzko seigarren txostena (2017-201) izapidetzeko prozesua edo hizkuntzei buruz onetsitako Suspertze eta Eraldatze Ekonomikorako Proiektu Estrategikoaren garapena, organo horren azken bileraren kariatara aurkeztu zena, 2022ko iraileko data daramana.

Ollo kontseilariak Gobernu zentralari orobat eskatu zion hizkuntza koofizialek –euskarak, kasu-presentzia handiagoa izatea ikus-entzunezko produktuen plataforma digitaletan, eta berretsi egin zuen beste eskaera historiko bat: Administrazio zentralak baimena eman dezala agiri ofizialek –NANA, gidabaimena...– ele biko formatua eduki ahal izatea Nafarroan.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du Ikus-entzunezko Komunikazioaren Lege Orokorra bete dezan eta berma dezan hizkuntza koofizialetako ekoizpenari dagokionez legean ezartzen den ehunekoa betetzen dutela ikus-entzunezkoen plataforma digitalek.

2. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du agiri ofizialak (NANA, gidabaimena...) ele bitan (gaztelaniaz eta euskaraz) egitea baimendu dezan Nafarroako Foru Komunitatean.

Iruñean, 2024ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-24/MOC-00126. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legea berrikus eta gaurkotu dezan, gure erkidegoko kultura-errealitate berrietara egokitzeko

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legea berrikus eta gaurkotu dezan, gure erkidegoko kultura-errealitate berrietara egokitzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Daniel López Córdoba, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, 2024ko urriaren 17ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Mozio honen jarraipena Kultura, Kirol eta Turismoko Batzordeak egingen du.

Zioen azalpena

Nafarroako Foru Komunitatean kultura mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legeak hamar urte luze ditu. Lege hori mugarria izan zen orduan, sektore pribatuak mezenasgoaren bidez parte hartuz gure erkidegoan kultura eta kultura-sektorea garatzen lagundu zuelako. Halere, onetsi zenetik 10 urte joan dira, eta bitarte honetan mezenasgoaren kontzeptua aldatu da, kultura-sektorea aldatu da eta hainbat lege aldatu dira, esaterako Kultur Eskubideei buruzko 1/2019 Foru Legea edo 49/2002 Legea aldatzen duen abenduaren 19ko 6/2023 Errege Lege-dekretua. Horregatik –agertoki berrietara egokitzeko– gaurkotu behar da, hain zuzen ere, lege hori.

Nafarroako Kulturaren webgunean mezenasgoari lotuta MECNA proiektuetarako eskaintzen den atala ere gaurkotu beharra dago, mezenasgoa jaso dezaketen proiektuen ikusgarritasuna hobetzeko. Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du 8/2014 Foru Legea berrikus eta gaurkotu dezan, gure erkidegoko kultura-errealitate berrietara egokitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premia-tzen du mezenasgoaren plataforma digitala sor dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-24/MOC-00127. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behar adinako aurrekontu-zuzkidura duten programak ezar ditzan, istripu-tasa handieneko sektoreetako enpresa nafarrei zuzenduak, laneko arriskuen prebentzioa indartzeko

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita behar adinako aurrekontu-zuzkidura duten programak ezar ditzan, istripu-tasa handieneko sektoreetako enpresa nafarrei zuzenduak, laneko arriskuen prebentzioa indartzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du urriaren 17ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Laneko istripu-tasaz hitz egitea lesioak eta gorputzeko kalte fisikoak edo psikikoak dauzkaten langileez hitz egitea da, are istripuek eragindako heriotzez, eta horrek eragina du horien familiengan eta ingurukoengan. Hortaz, berebiziko garrantzia du zorigaitz hori albait lasterren mozten saiatzeak eta laneko segurtasunean, osasunean eta prebentzioan aurrerabidea egiten jarraitzeak. Helburuak dira arriskuen prebentzioa, murrizketa eta, ahal dela, desagerraraztea, nahiz eta, zoritxarrez, zaila den zorigaitz hori –laneko istripuak eta jazorak– erabat desagerraraztea.

Enpresaren jardueraren fase guztietan lanetik heldu diren arriskuak ekidite edo murrizte aldera hartutako edo aurreikusitako jardueren multzoa da laneko arriskuen prebentzioa. Ekintza horiek funtsezkoak dira lantoki guztietan; bereziki, jarduera den bezalakoa izateagatik, arrisku gehien dutenentan. Horrek ez du esan nahi bigarren mailakotzat eduki behar denik jarduera arriskutsua ez den lantokietan.

Espainia osoan laneko istripu-tasarik handiena duen erkidegoa da Nafarroa, eta urteak daramatzagu podium zoritxarreko horren buru izaten. Aurten bertan, lehenbiziko sei hilabeteetan, 12 langile hil dira laneko istripu baten ondorioz gure herrialdean; iragan astelehenean, urriaren 7an, Funesko gazte bat hil zen tamalez laneko istripu baten ondorioz, hamabosgarrena, hain zuzen ere, urte hasieratik. Datuak latzak dira: 6.360 lan-istripu 2024ko lehen seihilekoan, aurreko urteko lehen seihilekoan baino 95 gehiago, eta 2022an baino 344 gehiago. Kezkagarriena da zifrak, absolutuak nahiz erlatiboak, etenik gabe igotzen ari direla.

Igoera hori larri-larria da. Lehenik eta behin, datu horien atzean bizia galdu duten edo laneko baja edo ezintasuna ekarri duen istripu bat sufritu duten pertsonak daudelako. Eta bigarrenik, Nafarroa asko aldentzen delako Espainiako eta Espainia osatzen duten erregioetako datuetatik. Nafarroan lan-istripuen intzidentzia-tasa 320,7 istripu bjaduneko da ehun mila langileko, Estatuko batez bestekoa baino 103,5 puntu handiagoa. Hau da, bada zerbait zuzen egiten ari ez dena. Datuak ikusirik, agerikoa da zerbait oker dabilela eta zuzendu beharrekoa dela.

Hori dela-eta, Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Behar adinako aurrekontu-zuzkidura duten programak ezar ditzan, istripu-tasa handieneko

sektoreetako enpresa nafarrei zuzenduak, laneko arriskuen prebentzioa indartzeko.

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

2. Sarrien gertatzen diren istripu eta jazoerei buruzko laneko arriskuen prebentzioko ikastaroak sustatu eta ezar ditzan etengabeko prestakuntzako programetan, bai eta birziklatzeko ikastaroak ere.

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-24/MOC-00128. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Pirinioetako Plan Estrategikoarekiko konpromisoa berresten baitu eta Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren txostenean jaso ziren baina oraindik bete ez diren gomendioak lantzeko konpromisoa hartzen baitu

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Pirinioetako Plan Estrategikoarekiko konpromisoa berresten baitu eta Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren txostenean jaso ziren baina oraindik bete ez diren gomendioak lantzeko konpromisoa hartzen baitu.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

2016an, Nafarroako Pirinioaldea osatzen duten haranetako Pirinioak Bizirik, Txantxalan eta Lan eta Bizi elkarteek lurralde horretarako kon-

ponbideak bilatzeko eta hausnartzeko tarte bat hartu beharra dagoela adierazi zuten Nafarroako Parlamentuan. "5 minutu Nafarroako Ekialdeko Pirinioetarako" goiburuean, ekimenak milaka sinaduraren abala jaso zuen.

Nafarroako Parlamentuak ponentzia bat bultzatu zuen berariaz ekimen horri erantzuteko. Lan hori Nafarroako Gobernuak ere babestu zuen; izan ere, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak Lursarea-Nafarroako Lurraldearen eta Jasangarritasunaren Agentziari agindu zion Pirinioetako Plan berriko lehenbiziko ekintzak mugatu eta lehenetsi zitzaizkien eta proiektuan parte hartzen duten eragile guztiak hartuko dituen gobernantza-eredu bat taxutu zezan.

2019tik hona, Nafarroako Gobernua da proiektua bultzatu eta koordinatzeaz arduratzen dena.

2020ko ekainean, Pirinioetako Batzarrak –Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Gobernuak, Pirinioetako Mahaiak (toki-entitateak), Nasuvinsa-Lursareak eta Cederna-Garalurrek osatzen duten gobernu-organoak– Pirinioetako Planeko dokumentuak onetsi zituen: 2020 Ekintza Plana, Gobernantza Plana eta Komunikazio Plana.

"Despopulazioaren aurkako borroka Nafarroan: foru-administrazioak hartutako neurriak" txostenean –zeina Nafarroako Kontuen Ganberak 2024ko maiatzean argitaratu baitzuen–, erakunde fiskalizatzaileak lan-metodologia nabarmendu zuen, hainbat bide eta eragileren bidez Pirinioetan identifikatutako beharrezkoen buruzko eskariak, analisia eta lehenetsiak bilduta. Orobat nabarmentzen da sektorearekin lotutako hainbat eragilek parte hartu

dutela eta inplikatu direla eskarien betetzean: arlo horretako eskumenak dauzkaten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuak, toki-entitateak, bai eta Nasuvinsa eta Cederna-Garalur ere, zuzenean inplikaturik daudenak lurralde-lantaldean parte hartzen baitute.

Hitz batean, nabarmentzekoa da Pirinioen despopulatzearen aurka ekiteko ezarri den ereduak, Pirinioen Plan Estrategikoaren bidezkoa, zeina kobernanzta-sistema koordinatu eta parte-hartzaile baten bidez exekutatu izaten ari baita. Sistema horretan ordezkariak dute maila politikoak, teknikoak eta sozioekonomikoak.

Hori dela-eta Nafarroako Kontuen Ganberaren gomendioa da despopulatzearen aurka borrokatzeko ereduak ezartzea, Pirinioen Plan Estrategikoaren antzekoak direnak kobernanzta-sistemari dagokionez; horretarako, lurraldean eta lurraldetik jarduketak sustatu eta exekutatu dira, eta Nafarroako beste eskualde despopulatu batzuentzako giza eta diru baliabideak paratu dira.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hauek aurkeztu ditut:

Lehena. Nafarroako Parlamentuak Pirinioetako Plan Estrategikoarekiko konpromisoa berresten du eta Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren 2018ko azaroaren 8ko txostenean jaso ziren baina oraindik bete ez diren gomendioak lantzeko konpromisoa hartzen du.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Pirinioetako Plan Estrategikoa bultzatzen eta garatzen jarrai dezan eta Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren txostenean jaso baina oraindik bete ez diren gomendioak bete daitezela lan egin dezan.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du Nafarroako Kontuen Ganberaren gomendioa –Pirinioetako Plan Estrategikoaren antzeko ereduak ezartzea Nafarroako beste eremu despopulatu batzuetan, despopulazioaren aurka borrokatzeko–, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du gomendio hori abian jartzea azter dezan.

Iruñean, 2024ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/MOC-00118. Mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Erriberriko gaueko larrialdi-zerbitzua berriz jar dezan

OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita Erriberriko gaueko larrialdi-zerbi-

tzua berriz jar dezan. Mozioa 2024ko urriaren 11ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/DEC-00046. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Hartara, heldu den urriaren 17an ekitaldi bat egingen du, Parlamentuko atalondoan, 9:00etan, Gizarte Entitateen Plataformarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak eutsi egiten dio pobrezia eta desberdinkeriaren aurka duen konpromiso irmoari.

3. Nafarroako Parlamentuak funtsezkotzat jotzen du erronka global berriei aurre egitea, desberdinkeriak areagotu egin baitira gure gizartean eta are gehiago herrialde txirotuetan.

4. Nafarroako Parlamentuak olan bat jarriko du bere fatxadan, Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Eguna ospatzeko".

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/DEC-00047. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie landa-eremuan bizi diren emakume guztiei

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko urriaren 14an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten die landa-eremuan bizi diren emakume guztiei, eta landa-eremuko emakumeen askatasun eta duintasunarekiko konpromisoa hartzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du lehen sektoreko emakumeen ekintzaitza bultzatzen jarraitzeko, berrikuntza eta digitalizazioa ardatz izanzen dituzten prestakuntza- eta aholkularitza-politikak eginez.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

